

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Elorrioko Udala**

**Ayuntamiento de Elorrio**

**2019**





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia .....	8
II.2 Urteko Kontuei buruzko iritiza .....	8
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK .....	10
III.1 Aurrekontua, kontabilitatea eta diru-sarrerak .....	10
III.2 Langileria .....	10
III.3 Kontratazioa .....	11
III.4 Transferentziak eta dirulaguntzak .....	11
III.5 Beste alderdi batzuk .....	12
IV. FINANTZAREN ANALISIA .....	13
V. URTEKO KONTUAK .....	16
ERANSKINAK .....	19
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera eta ezargarria zaion legeria .....	19
A.2 Aurrekontua eta aldaketak .....	19
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak .....	20
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak .....	21
A.5 Langileen gastuak.....	22
A.6 Ondasun arruntetan eta erosketa eta zerbitzuetan gastuak .....	23
A.7 Emandako transferentziak eta dirulaguntza arruntak .....	25
A.8 Aurrekontuko zordunak .....	27
A.9 Aktibo ez arrunta eta zorpetzea.....	28
A.10 Kontratazioaren analisia .....	29
ALEGAZIOAK .....	31



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

<b>ABREVIATURAS .....</b>	<b>33</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN.....</b>	<b>35</b>
<b>II. OPINIÓN.....</b>	<b>36</b>
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	36
II.2 Opinión sobre las Cuentas Anuales.....	36
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>	<b>38</b>
III.1 Presupuesto, contabilidad e ingresos .....	38
III.2 Personal.....	38
III.3 Contratación .....	39
III.4 Transferencias y subvenciones .....	39
III.5 Otros aspectos.....	40
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>	<b>41</b>
<b>V. CUENTAS ANUALES.....</b>	<b>44</b>
<b>ANEXOS .....</b>	<b>47</b>
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación aplicable.....	47
A.2 Presupuesto y sus modificaciones .....	47
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos .....	48
A.4 Ingresos por transferencias, subvenciones y otros ingresos.....	49
A.5 Gastos de personal .....	50
A.6 Gastos en bienes corrientes y servicios e inversiones .....	51
A.7 Transferencias y subvenciones corrientes concedidas .....	53
A.8 Deudores presupuestarios.....	55
A.9 Activo no corriente y endeudamiento .....	56
A.10 Análisis de contratación.....	57
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>59</b>

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 18a

Vitoria-Gasteiz, a 18 de noviembre de 2021



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURDURAK

BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BBUP	Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoa.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
GODG	Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
Mankomunitatea	Durangoko Merinazgoaren Mankomunitatea.
OHZ	Ondasun Higiezinen gaineko Zerga.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
Udalkutxa	Udal Finantzaketarako Foru Funtsa.





## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak agindutakoari eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programari jarraikiz, Elorrioko Udalaren 2019ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. azterketa lan hau fiskalizazio-gai den ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren balantzea, ekonomia eta ondarearen emaitzaren kontua eta aurrekontuaren likidazioa.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa-prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Elorrioko udalerriak 7.372 biztanle zituen 2019ko urtarrilaren 1ean. Udala Durangoko Merinazgoaren Mankomunitateko kide da eta honek zabor-bilketa, gizarte-zerbitzu, enpleguaren sustapen eta hizkuntzaren normalizazio zerbitzuak ematen dizkio. Gainera, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko kide ere bada, ur-horniduraren eta -saneamenduaren kudeatzailea.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. 2019ko apirila eta abuztua bitartean indarrean zegoen energia elektrikoaren hornidura-kontratua, 68.160 euroren kostuarekin, zuzenean esleitu zen, publizitate- eta lehia-printzipioak urratuz (ikus A.10).
2. Udalak 2019an erabaki zuen 2019ko abuztuaren 31n amaitzen zen eraikin publikoen garbiketa-kontratua gauzatzen jarraitzea. Egun horretatik aurrera, gastua 105.593 euro izango da. Kontratu berriaren izapidetzea 2019ko urriaren 21ean hasi zen, aurrekoaren indarraldia amaitu ondoren (ikus A.10).
3. Udalak hitzarmen bat sinatu zuen 2017an Uraren Euskal Agentziarekin, Toloto erreka bideratzeko obrak egiteko. Hitzarmena 2018an aldatu zen, Udalak finantzatu beharreko 308.382 euroren obra osagarriekin, eta ondoren onartu zen aurrekontu-aldaketa, 2019ko urrian. 2018an gastua konprometitu zen, dagozkion kontsignazioak alde aurretik onartu Gabe eta gastua gauzatzeko aurrekontu-printzipio orokorrak urratuz (ikus A.7).

Epaitegi honen iritzira, Elorrioko Udalak, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2019ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

### II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Hona hemen Elorrioko Udalaren Gastu Orokorraren Diruzaintza Geldikinean eta Ondare Garbian eragina duten doiketak 2019ko abenduaren 31n:

ERANSKINA/KONTZEPTUA	GODG	Euroak milakotan		
		ONDAREKOA		
		AKTIBOA	PASIB.	OND.GARB.
A.3 OHZ eta JEZ sarrerak, 2019an sortu eta 2020an erregistratuak .....	83	83	-	83
A.3 Kobratzeke dauden trafiko-zehapenak (2018 eta 2019) .....	51	51	-	51
A.3 Partzuergoaren 2003ko kalte-ordaina, aurrekontuari aplik. gabeko aseg. ....	79	79	-	79
A.5 2019ko abenduko Gizarte Segurantza.....	(44)	-	44	(44)
A.6 2019ko gastu aitortu gabeak.....	(87)	-	87	(87)
A.7 Toloto erreka bideratzea-2019ko abenduaren 31n obra egikaritua .....	(138)	-	138	(138)
<b>TOTAL</b>	<b>(56)</b>	<b>213</b>	<b>269</b>	<b>(56)</b>

2. Erantsitako kontuek ez dute inbertsio-konpromisoen berri ematen, 2019ko abenduaren 31n 1,8 milioi euro, Udalbatzak 2006an onartutako bigarren mailako sarearen kudeaketa BBUPri lagatzeko hitzarmenaren ondorioz sortutakoak (ikus A.3).





Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Epaitegi honen iritzira, aurreko 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Elorrioko Udalaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan erakusten du 2019ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta 2019ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, arauan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

### III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jaso dira ekonomia eta finantza jarduera arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak ez ezik, baita kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere.

#### III.1 AURREKONTUA, KONTABILITATEA ETA DIRU-SARRERAK

- Aurrekontua betearazteko arauan, Udalbatzak mugatu egin zuen gastuen alde aurreko fiskalizazioa: kreditua badagoela egiaztatzen, konpromisoa hartzen duen/gastua aitortzen duen organoaren eskumenera eta beste alderdi garrantzitsu batzuetara, zehaztu gabe. Komenigarria litzateke azken alderdi horiek zehaztea, izan ere 2019an 12 eragozpen-ohar eragin zituzten kontratazio-prozedurari eta langileen eta dirulaguntzen arloko beste gai batzuei dagokienez.
- Memoriak jakinarazi beharko luke sortzapenaz bestelako irizpideak aplikatzeak eragindako ondorioa zaborren eta estolderiaren tasetan.
- BFArekin OHZaren eta JEZaren kudeaketa eskuordetzeko izenpetutako hitzarmenak Udalbatzak onartu beharreko urteroko luzapenak aurreikusten ditu; udalbatzak, baina, ez du halakorik formalizatu 1989az eta 1992az geroztik, hurrenez hurren.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak zabor tasaren diru-bilketa zerbitzua ematen du eta 2019an 46.608 euroren kostua izan du; horren baldintzak dagozkion hitzarmenean arautu behar lirateke. Zehazki, alkateak hiruhileko erroldak onartzea aurreikusi beharko litzateke.

#### III.2 LANGILERIA

- Udalak ez zion publikotasunik eman 2019ko ordainsari igoera onartu zuen erabakiari.
- Udaleko langile publikoen lan-baldintzak arautzen dituen akordioak partzialki ordaindutako baimenak ematen ditu (4 eta 12 hilabete), tokiko sektoreari aplikatu beharreko funtzio publikoaren araudian aurreikusten ez direnak. Urteko baimenaren kasuan, onuradunei % 80ra murrizten zaizkie ordainsariak 4 urtez, eta ordainsari hori murriztuta egoten da baimenak dirauen bitartean. Udalek ezin dute langileen baimenei buruzko lege-erregulazioa aldatu.
- Udalak ez du absentismoa murrizteko planik onartu, eta ez du absentismoari buruzko estatistikarik argitaratu, horren arrazoiak zehaztuz.
- Udalak 2018an Giza Baliabideetako Plan Estrategiko bat onartu zuen, langileen erretiro aurreraturako pizgarrien ordainketa ezartzen zuena. Ez zen, baina, nahitaezko txostena egin hura eragin zuten arrazoi objektiboak, lortu beharreko helburua eta ondorio ekonomikoak zehaztuz.
- 2019ko ekitaldian, 9 langileri osagarri pertsonal iragankorrak ordaindu zaizkie, 9.154 eurorenak guztira. Osagarri horiek 2013an egindako balorazioan dute jatorria. Urteko



ordainsari-igoera aplikatzen zaio ordainsari-kontzeptu horri; ordea, araudiak ez ditu eguneratze horiek aurreikusten.

### III.3 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 4 kontratu nagusiak aztertu ondoren -4,2 milioi euroren esleipenei dagozkienak- honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu (ikus A.10):

- 4 kontratuetan espedientea abiarazi zen nahitaezko Oroitidazkia egin gabe, balio zenbatetsia banakatuz eta erabilitako hautaketa-irizpideak, baliabideen eskasia eta lotetan ez banatzeko erabakia justifikatuz (A1 akatsa).
- Udal-eraikinak garbitzeko kontratua (2,2 milioi eurotan esleitu) izapidetzeko aholkua emateko izendatutako kontratazio-mahaiaren 4 bilerak gaitutako 2 funtzionarioetako baten presentziarik gabe egin ziren. Gainera, ez zen argitara eman kontratua formalizatu izana (B akatsa).
- Aztertutako obra-kontratua 525.532 euroan esleitu zen eta 17.256 euroren aldaketa bate gin zitzaion; aldaketa hori, baina, gauzatu ondoren onartu zen. Obra hori ez zen formalki jaso, ez baitzen zegokion akta egin, bermealdiaren hasiera zehazten duena (B akatsa).
- Udal-lokalak garbitzeko kontratuaren pleguak, 2,2 milioi euroan esleituak, eskaintzen ezohiko bajak arautzen dituenek, lizitazio-prezioa hartzen du erreferentziazat, aurkeztutako eskaintzak kontuan hartu beharrean (B akatsa).

#### Alderdi orokorrak eta erosketa txikiak

- Udalak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu-kontratuen esleipendun diren enpresetako langileen arteko harremana argitzeko eskatutako jarraibideak ebatzi, lan harreman baten aitortza eragin zezaketen ekintzak erabakigarri izatea saihestearren.
- 2 kontratutan proportzionaltasun soileko formula bat baliatu zen, faktore honen egiazko balioa murrizten zuena, lizitazio prezioa berdintzen zuten eskaintzei puntuak emanez (2 eta 3 espedienteak).
- 2019an 125.846 euroren kostua izan zuten 4 zerbitzu eta aseguru-kontratu bat erosketa txiki modura esleitu zirela ikusi dugu, prozedura ireki bidez izapidetu beharrean. BEZik gabeko kostua 35.000 eurotik beherakoa zenez, prozedura ireki sinplifikatu laburtuaren bidez izapidetu zitekeen (ikus A.10).

### III.4 TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK

- Mankomunitateak, Udalaren kontura, kontsumitzailearen bulego-zerbitzuak, droga-mendekotasunei arreta emateko zerbitzuak eta agenda 21 zerbitzua ematen ditu, baina ez dira jasotzen zerbitzua transferitzeko edo udalaz gaindiko erakundeari enkargua emateko erabakiak. 2019an, 34.674 euroren ekarpena egin zen kontzeptu horien ordainetan.



- Garapen bidean dauden herrialdeetako programetarako laguntzen 2 onuradunen justifikazioak EAEko beste elkarte bati eta fundazio bati eta helmugako herrialdeko pertsonei egindako ordainketak jasotzen zituen. Diruz lagundutako jardueraren azpikontratazioak araudian aurreikusita egon behar du, eta, hala badagokio, tokiko bazkidearen figura araututa.
- Ikastetxe publiko eta pribatuei eskola-materialetarako emandako dirulaguntzak, toki-erakundeek besteko eskumen-eremu batean sartzen dira, eta, beraz, beharrezkoak dira BFAREN eta EAEREN txostenak.
- Urteko programen araberrako dirulaguntza arrunten azken ordainketa (5 deialdi eta 7 dirulaguntza izendun) hurrengo ekitaldian egindako likidazioarekin egiten da, eta 71.478 eurorena izango da 2019ko abenduaren 31n konprometitutako kredituetarako. Saldo handienetarako, komenigarria litzateke likidazio-epeak ezartzea, emaitza ekitaldi bakoitzaren itxieran sartu ahal izateko.

### III.5 BESTE ALDERDI BATZUK

- Gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko araudiak informazio jakin bat udalaren webgunean argitaratzea eskatzen du. Zinegotzien ondasunen eta jardueren urteko aitortpenak sartu beharko lirateke, eta sinatutako hitzarmenen zerrenda osatu (Uraren Euskal Agentzia, BBUP, Montorroste, etab.), bereziki hirigintzakoak, sektoreko araudiak haietara askatasunez sartzeko eskatzen duelako.



#### IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera honako taula honetan dago zehaztua.

##### FINANTZAREN ANALISIA

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2017(*)	2018(*)	2019	2017	2018	2019
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	3.128	3.111	3.509	428	424	476
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.).....	4.396	4.986	5.455	602	680	740
Ondare sarrerak (5. kap.).....	18	10	9	2	1	1
<b>A. Sarrera arruntak</b> .....	<b>7.542</b>	<b>8.107</b>	<b>8.973</b>	<b>1.032</b>	<b>1.105</b>	<b>1.217</b>
Langile-gastuak (1. kap.).....	2.314	2.452	2.424	317	334	329
Ondasun arrunt eta zerbitz. gastuak (2. kap.).....	2.433	2.725	3.298	333	372	447
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.).....	1.476	1.525	1.595	202	208	217
<b>B. Funtzionamendu-gastuak</b> .....	<b>6.223</b>	<b>6.702</b>	<b>7.317</b>	<b>852</b>	<b>914</b>	<b>993</b>
<b>Aurrezki gordina (A-B)</b> .....	<b>1.319</b>	<b>1.405</b>	<b>1.656</b>	<b>180</b>	<b>191</b>	<b>224</b>
- Gastu finantzarioak (3. kap.).....	(13)	(12)	(10)	(2)	(2)	(1)
<b>Emitza arrunta</b> .....	<b>1.306</b>	<b>1.393</b>	<b>1.646</b>	<b>178</b>	<b>189</b>	<b>223</b>
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	(133)	(133)	(133)	(18)	(18)	(18)
<b>Aurrezki garbia</b> .....	<b>1.173</b>	<b>1.260</b>	<b>1.513</b>	<b>160</b>	<b>171</b>	<b>205</b>
Inbertsioen besterentzea (6. kap.).....	1	-	13	-	-	2
Jasotako kapitaleko dirulaguntzak (7. kap.).....	111	246	238	15	34	32
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	(1.007)	(1.406)	(1.360)	(138)	(192)	(184)
- Emandako kapitalezko dirulaguntzak (7. kap.).....	(42)	(17)	(2)	(6)	(2)	-
<b>Kapitalezko eragiketen emitza</b> .....	<b>(937)</b>	<b>(1.177)</b>	<b>(1.111)</b>	<b>(129)</b>	<b>(160)</b>	<b>(150)</b>
Eragik. ez finantzarioaren emitza (1etik 7rako kap.).....	369	216	535	49	29	73
Diruzaintza Geldikina.....	2.666	2.682	3.065	365	366	416
Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.....	2.169	2.215	2.591	297	302	351
Zorpetzea 12.31n.....	1.152	1.019	886	158	139	120

(\*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

**Sarrera arruntak:** % 11,3 egin dute gora 2017ko urtearen aldean.

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** % 12,2 igo dira, 2019an kirol-instalazioek sortutako diru-sarrerak sartu baitziren, aurreko urteetan zerbitzuaren kudeaketaren kostua murrizten baitzuten.
- **Transferentziak eta dirulaguntzak:** % 24,1 egin dute gora osagai nagusi den Udalkutxak gora egin duelako.



**Funtzionamendu-gastuak:** % 17,6 egin dute gora 2017 eta 2019 bitartean eta xehekapen hau dute:

- **Langile-gastuak** % 4,8 hazi dira hirurtekoan, 2018ko eta 2019ko % 1,75eko eta % 2,8ko soldata-igoeren ondorioz. Igoera horien eragina murriztu egin da azken urtean aldi baterako langileak gutxiago kontratatu direlako. Gizarte Segurantzako kotizazioek % 16,4 egin dute gora, gehieneko kotizazio-oinarriak igo izanaren ondorioz eta 2019ko urtarrilaz geroztik udaltzaingoari % 8,8ko gainkargua ezarri izanaren ondorioz.
- 2019ko ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak 2017koak baino % 35,6 handiagoak izan dira, eta nabarmentzekoak dira kirol-instalazioen kudeaketa-kostuaren igoera (2019ra arte diru-sarrerak kenduta islatzen ziren) eta konponketan eta zaintzan izandako gastu handiagoak.
- **Transferentziak eta dirulaguntzak** % 8,1 gehitu dira, Lanbideren enplegu-planak garatzeko ekarpen handiagoak egin direlako.

**Aurrezki gordina:** aldagai honek erakundearen autofinantzaketa-maila neurtzen du eta 2019an sarrera arrunten % 18,5 egin zuen, hirurtekoan egonkor eutsi ziolarik.

**Aurrezki garbia eta zorpetzea:** Indarrean dauden 2 maileguetatik zor den saldoa eta amortizazio eta interesengatikoko finantza-karga diru-sarrera arrunten % 9,9 eta % 1,6 igo ziren 2019an. Inbertsioak finantzatzeko aurrezki garbi erabilgarria 1,5 milioi eurorena izan zen, 2019ko sarrera arrunten % 16,9.

**Kapital-eragiketen emaitza:** aztergai izan dugun aldian inbertsioek 3,8 milioi euro egin dituzte, hirurteko sarrera arrunten % 15,6 eta nagusiki eta berezko baliabideekin finantzatu dira.

**Gastu Orokorretarako Diruzaintza geldikina:** aldagai hori % 19,5 hobetu da, eta 2019ko abenduaren 31n 2,6 milioi euro izan zen, urte horretako diru-sarrera arrunten % 28,9.

**Ondorioa:** zerga itunduen diru-bilketan parte hartzeagatikoko diru-sarreraren igoerak (Udalkutxa) zerbitzuen kostuen igoera konpentsatu du, eragiketa arrunten egiturari egonkor eutsiz eta sortutako aurrezki-maila ere hobetuz. Gastu orokorretarako geldikina, 2019ko abenduaren 31n, diru-sarrera arrunten % 28,9 zen, eta zorpetzea gainditzen du. Azken hori diru-sarrera arrunten % 9,9koa da, EAEko udalen batez bestekoa baino txikiagoa (% 16,9, 2018an). Aurreikuspenen arabera, aurrezpen mailak behera egingo du 2020an, baina Udalaren egoera onberari esker, litekeena da 2020an sortutako krisiaren ondorioak arintzea. COVID 19aren ondorioz, 2020ko kontuetan aurreikusitako ondorio nagusia Udalkutxaren diru-sarrerak 713.821 euro murriztea da, 2019an sortutako aurrezki garbiaren % 47,2ren pareko.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

**Aurrekontuaren egonkortasuna:** Udalaren Kontu-hartzailletza atalak egindako txostenak dio aurrekontuaren egonkortasunaren arautegia bete dela Likidazioari dagokionez, eragiketa ez finantzarioetan superabita izan duelako eta Udalaren zorra sarrera arrunten % 9,9 izan delako. Gastuaren arauari dagokionez, 2019an gastu zenbagarriak behera egin zuen eta honenbestez, 2019rako finkatutako muga bete zen, gastu horiek % 2,7ra arte gehitzea ahalbidetzen baitzuen.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V. URTEKO KONTUAK

### 2019KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE KITAT.	KOBRA. KOBRA.	KOBRA. GABEA	%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Zerga zuzenak .....	A.3	2.050	-	2.050	1.999	1.932	67	% 98
2. Zeharkako zergak .....	A.3	120	-	120	196	189	7	% 163
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	1.227		1.227	1.314	1.282	32	% 107
4. Transferentziak eta dirulag. arruntak.....	A.4	5.094	340	5.434	5.455	5.332	123	% 100
5. Ondare-sarrerak.....	-	9	-	9	9	9	-	% 100
6. Inbertsio errealen besterentzea .....	-	-		-	13	13	-	-
7. Kapitalezko transferentz. eta dirulagun.....	A.4	30	194	224	238	14	224	% 106
8. Aktibo finantzarioak .....	-	11	2.102	2.113	1	1	-	(*) % 9
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>8.541</b>	<b>2.636</b>	<b>11.177</b>	<b>9.225</b>	<b>8.772</b>	<b>453(*)</b>	<b>% 102</b>

(\*) Exekuzioaren % kalkulaturakoan Diruzaintza Geldikin bidez finantzatzearen eragina zuzendu da.

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAIN. ORDAINK.	ORDAIN. GABE	%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Langileen gastuak .....	A.5	2.606	145	2.751	2.424	2.424	-	% 88
2. Ondasun arruntan eta zerbitz. gastuak.....	A.6	3.372	639	4.011	3.298	3.196	102	% 82
3. Gastu finantzarioak.....	-	14	-	14	10	10	-	% 71
4. Transferentzia arruntak .....	A.7	1.506	274	1.780	1.595	1.572	23	% 90
6. Inbertsio errealak .....	A.6	876	1.269	2.145	1.360	1.322	38	% 63
7. Kapitalezko transferentziak.....	A.7	23	309	332	2	2	-	% 1
8. Aktibo finantzarioak .....	-	11	-	11	1	1	-	% 9
9. Pasibo finantzarioak.....	A.9	133	-	133	133	133	-	% 100
<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>		<b>8.541</b>	<b>2.636</b>	<b>11.177</b>	<b>8.823</b>	<b>8.660</b>	<b>163</b>	<b>% 79</b>
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>					<b>402</b>			

### AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	BALIOG.	KOBRA./	AZKEN
		ZORRA		ORDAIN.	
Zordunak .....	A.8	743	(19)	371	353
Hartzekodunak .....		169	-	169	-
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>			<b>(19)</b>		





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....	9.225
Obligazio aitortuak .....	8.823
<b>INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>402</b>
<b>AURREKO EKITALDIETAKO KITATUTAKO AURREK. ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>(19)</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA</b>	<b>383</b>
Finantzaketako desbideratzeak .....	(18)
Diruzaintza geldikinarekin finantzaturako gastuak.....	1.557
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>	<b>1.922</b>

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza Geldikina 19.1.1ean .....	2.682
Ekitaldiaren aurrekontuko emaitza .....	383
<b>DIRUZAINZA-GELDIKINA 19.12.31N</b>	<b>3.065</b>
Diruzaintzako funts likidoak .....	2.667
Sarrerren aurrekontuko zordunak (ikus A.8) .....	806
Gastu-aurrekontuaren hartzekodunak.....	(163)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak .....	(166)
Aurrekontuari ezartzeko dauden kobrantzak (ikus A.3) .....	(79)
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA 19.12.31N</b>	<b>3.065</b>
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak.....	(353)
Hirigintzako jardueretatik eratorritako sarrerak.....	(97)
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza-geldikina .....	(24)
<b>GODG 19/12/31N</b>	<b>2.591</b>
<b>ZORPETZEA 19.12.31N (ikus A.9)</b>	<b>886</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2019KO ETA 2018KO ABENDUAREN 31N Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSK.	2019	2018	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	ERANSK.	2019	2018
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>38.011</b>	<b>38.680</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>		<b>39.835</b>	<b>39.975</b>
Ibilgetu ukiezina.....	A.9	83	82	Ondarea .....	-	19.044	19.044
Ibilgetu materiala .....	A.9	37.273	37.916	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	-	20.913	21.131
Lurraren ondare publikoa.....	A.9	625	652	Ekitaldiko emaitza.....	-	(216)	(199)
Finantza inbertsioak epe luzera .....	A.9	30	30	Emaitzara egotzi gabeko dirulag. ....	-	94	(1)
				<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>		<b>753</b>	<b>886</b>
				Epe luzeko zorrak .....	A.9	753	886
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>		<b>3.121</b>	<b>2.733</b>	<b>PASIBO ARRUNTA</b>		<b>544</b>	<b>552</b>
Zordunak eta kobr. bst knt b.....	-	453	377	Kreditu erakundeekiko zorrak .....	A.9	133	133
Finantza inbertsioak epe lab.....	-	1	-	Administrazio publikoak.....	-	108	109
Eskud. bst. akt. lik. baliokideak .....	-	2.667	2.356	Hartzek. eta ord. bst kontu batz.....	-	303	310
<b>GUZTIRA</b>		<b>41.132</b>	<b>41.413</b>	<b>GUZTIRA</b>		<b>41.132</b>	<b>41.413</b>

EKONOMIA ETA ONDAREAREN EMAITZAREN KONTUA, 2019 eta 2018 Euroak milakotan

	2019	2018
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak .....	3.010	2.934
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak .....	5.597	5.320
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa.....	398	22
Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk.....	108	148
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>9.113</b>	<b>8.424</b>
Langileen gastuak.....	(2.457)	(2.478)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	(1.597)	(1.541)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk.....	(3.265)	(2.680)
Ibilgetua amortizatzea .....	(2.029)	(1.950)
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(9.348)</b>	<b>(8.649)</b>
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA</b>	<b>(235)</b>	<b>(225)</b>
Arruntak ez diren beste partida batzuk .....	7	10
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>(228)</b>	<b>(215)</b>
Sarrera finantzarioak .....	7	7
Gastu finantzarioak .....	(10)	(12)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentz. ....	15	21
<b>FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>12</b>	<b>16</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA</b>	<b>(216)</b>	<b>(199)</b>



## ERANSKINAK

### A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA ETA EZARGARRIA ZAION LEGERIA

Elorrioko Udala toki erakundea da, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeari buruzko Legeak arautzen duena, 57/2003 Legeak, Toki administrazioa eraberritzeko neurriei buruzkoak eta 27/2013 Legeak, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasun neurriei buruzkoak aldarazitakoa; baita 2/2016 Legeak ere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak.

Arautegi horrek udalek ematen dituzten eskumenak edo zerbitzu publikoak definitzen dituzte, besteak beste: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, suteak itzaltzeko zerbitzua, ur-hornidura, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintza-diziplina, kultura- eta kirol-jarduerak.

Zerbitzu hauek nagusiki honako hauen bidez finantzatzen dira: zerbitzu jakin batzuen zerga, tasa eta prezio publikoak, zerga itunduetan parte-hartzeagatik sarrerak, ondare sarrerak, diru-laguntzak eta kreditu eragiketak.

Ekitaldian ezargarrria den aurrekontuko eta kontularitzako araudi nagusia 10/2003 Foru Arauak jasotzen du, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, eta 139/2015 Foru Dekretuak, Bizkaiko toki entitateen kontularitzako araudi-esparrua onartzen duenak.

### A.2 AURREKONTUA ETA ALDAKETAK

2019ko ekitaldirako aurrekontu orokorra 2018ko abenduaren 20ko Udalbatzak onetsi zuen hasiera batean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2019ko urtarrilaren 31n eman zen argitara behin betiko onarpena.

Hona hemen, 2019ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakaturik:

KAPITULUAK	Euroak milakotan					
	Kreditu txertaketa	Kreditu gehigarria	Kreditu gaikunt.	Transferentziak		GUZTIRA
				+	-	
4. Transferentzia arruntak .....	72	-	268	-	-	340
7. Kapitalezko transferentziak .....	-	-	194	-	-	194
8. Aktibo finantzarioen bariazioa: Geldikina .....	693	1.409	-	-	-	2.102
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>765</b>	<b>1.409</b>	<b>462</b>	-	-	<b>2.636</b>
1. Langileen gastuak .....	-	-	-	175	(30)	145
2. Ondasun arruntean eta zerbitz. gastuak .....	186	423	51	7	(28)	639
4. Transferentzia arruntak .....	217	21	217	5	(186)	274
6. Inbertsio errealak.....	362	656	194	57	-	1.269
7. Kapitalezko transferentziak .....	-	309	-	-	-	309
<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>765</b>	<b>1.409</b>	<b>462</b>	<b>244</b>	<b>(244)</b>	<b>2.636</b>

Onartutako 23 aldaketa-espeditentek gastuen hasierako aurrekontua % 31 gehitu dute.

2019ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2020ko urtarrilaren 24ko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra 2020ko uztailaren 29ko Udalbatza bitartez.

### A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen Likidazioaren lehenengo 3 kapituluaren sarrerak:

KONTZEPTUA	SARRERA	Euroak milakotan
OHZ (BFaren kudeaketa) .....	1.057	
JEZ (BFaren kudeaketa) .....	353	
Trakzio mekanikodun Ibilgailuen gaineko zerga.....	496	
Hiri izaerako lursailen balioaren gaineko zergaren igoera.....	93	
<b>ZERGA ZUZENAK GUZTIRA</b>	<b>1.999</b>	
Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga .....	196	
<b>ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>196</b>	
Zaborren bilketa (BBUPren diru-bilketa) .....	380	
Estolderia (BBUPren diru-bilketa).....	72	
Hileta zerbitzuak .....	9	
Hirigintzako eta establezimenduak irekitzeko lizentziak .....	51	
Jabari publik. okupazio-tasa (ibiak, aldamiok, mahaia eta aulkiak, postuak eta barrakak) .....	59	
Enpresa hornitzaileek lurra, lurpea eta hegala okupatzea.....	225	
Hiriko kanpamenduak, dantza-ikastaroak, kirol-eskola, bisita gidatuak, etab. ....	17	
Kiroldegia.....	247	
Kanpoko igerilekuak.....	133	
Aurreko urteetako itzulketak .....	6	
Trafikoko isunak eta beste zehapen batzuk .....	53	
Premiamendu eta berandutza interesen errekarguak .....	7	
Telekomunikazio-operadoreak.....	34	
Bestelako diru-sarrera txikiak.....	21	
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>1.314</b>	
<b>1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA</b>	<b>3.509</b>	

Udalak OHZren, JEZren eta zabor eta estolderia bilketaren tasen diru-sarrerak aitortzen ditu BFAk eta BBUPk dagozkien likidazioak jakinarazten dizkiotenean, ekitaldi bakoitzeko kobrantza-errodengatiko diru-sarrerak aitortu beharrean:

- BFAk OHZ eta JEZ borondatzeko epean kudeatzen eta jasotzen ditu, konturako entregak eginez eta urteko likidazioak gauzatuaz hurrengo ekitaldi hasieran. Udalak 2019ko diru-sarrera gisa erregistratu zituen 2018ko bilketaren likidazioa eta 2018tik ordaintzeke dauden ordainagiriak, bai eta 2019ko bilketaren konturako ordainketak ere (Udalaren JEZ). 2019ko likidazioa eta ekitaldi-itxieran zerga biengatik kobratzeke zeuden ordainagiriak, 83.100 eurorenak, 2020an erregistratu ziren.
- Zaborrak eta estolderiak biltzeko tasak BBUPk biltzen ditu, eta hiruhileko likidazioak egiten ditu. Likidazio horietatik abiatuta, Udalak hiruhileko bakoitzean kobratzeko jarritako ordainagiriaren zenbatekoaren arabera diru-sarrerak aitortzen ditu. Lehenengo tarifa finkoa da, eta hiruhileko natural bakoitzeko lehen egunean sortzen da; bigarrenean, aldiz, aldatu egiten da uraren kontsumoen arabera. 2019ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako likidazioak 2020ko otsailean eta maiatzean jakinarazi



zitzaizkion Udalari, hurrenez hurren, eta bi hiruhileko horietako erroldak, 254.837 eurorenak, 2020ko diru-sarrerera gisa onartu ziren.

Kutxa-irizpidea aplikatzen da trafiko-zehapenen ondoriozko diru-sarrereren erregistroan. Hori dela eta, 2019ko abenduaren 31n kobratzeke zeuden isunak ez ziren diru-sarreratzat hartu; halaber, 2018ko eta 2019ko saldoetatik ordaintzeke zegoen saldoa 50.708 eurorena zen.

2003an, Udalak 78.942 euroren kalte-ordaina kobratu zuen aseguru-konpainia batengandik, 2019ko abenduaren 31n aurrekontuari aplikatu gabe zegoena. Saldoaren antzintasunak eta horri buruzko errekerimendurik ez egoteak erakusten dute saldoa ezin zela eskatu.

Udala ur-hornidurako zerbitzuaren titularra da, baina 2006an BBUPren esku utzi zuen haren kudeaketa, eta Udalak BBUPko eskualdeko kolektoreekin lotzen den estolderia-sareari eutsi dio. BBUPrekiko hitzarmenak aurreikusten zuen zerbitzua finantzatzen duen udal-tasaren etekin ekonomiko guztiak ingresatuko zituela eta Udalak hobekuntza batzuk egingo zituela; alabaina, 2019ko abenduaren 31n 1,8 milioi euroko obrak egiteke zeuden eta horiek hitzarmenaren indarraldia amaitu baino lehen, 2028ko otsailean, gauzatu beharko dira.

#### A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hauek dira transferentzia arruntek eta kapitalezko transferentziek eragindako sarrereren xehetasunak:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	Zenbat.
<b>BIZKAIKO FORU ALDUNDIA</b>	
Udalkutxa-zerga itunduetan partaidetza:2019ko aurrerakinak.....	4.810
Udalkutxa-zerga itunduetan partaidetza: 2018ko likidazioa.....	283
Ikuskizun eszenikoen 2018ko eta 2019ko programak .....	42
Musikaire programa eta euskararen erabileraren sustapena.....	32
<b>EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOIA</b>	
Lanbide - Eskualdeko Enplegu Plana 2017-18 langabeen kontratazioa, likidazioa.....	69
Lanbide-Eskualdeko Enplegu Plana 2019-20: langabetuen kontrat.-aurrerakina .....	(*) 96
DBHko 10 ikasgela mantentzea eta garbitzea.....	66
Aniztasun progr. 2018, bake-epaitegia, memoria historikoaren astea eta bst. txiki btz .....	21
<b>BESTE BATZUK</b>	
Estatua: itundu gabeko zergak, genero-indarkeria.....	13
Enpresak: musikaire programak eta jantoki soziala .....	23
<b>4. KAPITULUA GUZTIRA</b>	<b>5.455</b>
Estatua: argiteria publikoan led-ak instalatzea .....	127
EAE: leihoak aldatu eta egokitutako zerb. eskolan, Berrio auzoan hornid. sarea zabal. ....	43
BFA: argiteria publikoan eta Argiñetako nekropolian led-ak instalatzea .....	68
<b>7. KAPITULUA GUZTIRA</b>	<b>238</b>
(*) 2019ko abenduaren 31ko GODG kalkulatzearan finantzaketaren desbideratzea.	

Udalak itundutako zergetan (Udalkutxa) parte hartzeagatiko aurrerakinak 2020ko otsailean likidatu ziren, eta Udalaren aldeko saldoa 145.556 euro izan zen. Kopuru hori 2021eko urtarrilean kobratu da, Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseiluak ordainketa atzeratzea erabaki baitzuen eta Udalak diru-sarrera 2021eko aurrekontuaren kontura erregistratu du.

## A.5 LANGILEEN GASTUAK

Gastu-kapitulu hau era honetara xehakatzen da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	Gastua 2019	LZ	Plantilla 19.12.31
Korporaziokideak (alkatea eta 2 zinegotzi) .....	60	-	3
Funtzionarioak .....	1.379	30	31 (a)
Langile lan kontratudun finkoak.....	334	13	8
Aldi baterako lan-kontratuko langileak.....	82	-	18 (b)
Ordainsarien guztizko partziala .....	1.855	43	60
Gizarte Segurantzari kotizazioak .....	501		
Pentsio osagarrietarako ekarpenak: Elkarkidetza .....	45		
Aseguruak eta prestakuntza.....	23		
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.424</b>		

(a) 6 bitarteko funtzionario barne hartzen ditu: 3 lanpostu hutsak betetzeko eta 3 programakoak, lanaldi murrizketagatik.

(b) 4k lanpostu hutsak betetzen dituzte, 14 Lanbideko Enplegu Planeko 6 hilabeteko kontratuak (alta abenduan).

Langileen ordainsariak % 2,25 eta % 0,25 gehitu ziren, 2019ko urtarrilaren 1etik eta uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin, hurrenez hurren. Udal-langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa 2014an onartu zen (BAO, 2015eko urtarrilaren 26koa).

Aurreko taulako Gizarte Segurantzaren kotizazioak azarora arte zorpetutakoak dira, 2019ko abenduko kuotak barne hartu gabe, 43.992 euro.

Udalak Gizarte Segurantzaren lanerako ezintasun iragankor kontzeptuko prestazioak osatzen ditu eta 2019an 24.372 euroren kostua eragin dute.

## Altak

2019ko ekitaldian Udalak honako langile-kontratazio hauek gauzatu ditu:



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

	Kontratu kop.
<b>Karrerako funtzionarioak</b>	<b>2</b>
<b>Bitarteko funtzionarioak</b>	<b>9</b>
Lanpostu hutsa betetzea.....	4
Baimenak, oporrak, lanaldi-murrizketak.....	4
Zereginak metatzea (6 hilabetera arte).....	1
<b>Aldi baterako lan kontr. langil.</b>	<b>16</b>
Obra-kontratua (Lanbideko enplegu-plana) .....	14
Bitarteko kontratua (lanpostu hutsak betetzeko 1 eta zereginak metatzeko 1).....	2
<b>GUZTIRA (26 langile)</b>	<b>27</b>

## A.6 ONDASUN ARRUNTETAN ETA EROSKETA ETA ZERBITZUETAN GASTUAK

2. kapituluaren erregistratzen dira ondasun arruntan eta zerbitzuen kontratazioari dagozkion gastuak; ondotik xehakatu ditugu kontzeptu esanguratsuenak:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	Gastua	D-O
<b>Alokairuak (3 lokal, Gabonetako apaingarriak eta makinak)</b>	<b>61</b>	<b>2</b>
<b>Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza</b>	<b>565</b>	<b>25</b>
Eraikuntzak eta instalazioak.....	128	14
